


KARLISMOAREN MUSEOA

KARLISMOAREN MUSEOA
MUSEO DE CARLISM



SISTEMA DE
MUSEOS DE
NAVARRA
NAFARROAREN
MUSEUEN
SISTEMA

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua



1. EREMUA KARLISMOA HIRI HISTORIKOA

Karlismoa: historia eta memoria

Karlismoa iraganean sortu zen arren gaur egun memoria kolektiboan presentzia duen mugimendu historikoa da. Denboraren ikuspegiaren eta hausnarketa historikoaren bidez gaur egun karlismoak 1977. urtera arte izan zuen garapena aztertzeko aukera ematen digu.

Iraultza

‘Iraultza’ hitzarekin izendatzen ditugu XVIII. mendearen bigarren erdialdean bai Europan, bai Ameriketako Estatu Batuetan izandako aldaketak. Garai horretan zenbait gauza lortu ziren: nobleziaren eta kleroaren pribilegioak kentzea, askatasun eta berdintasun oinarriak finkatzea, Estatuaren botereen banaketa eta lege konstituzional bat ezartzea.

Iraultzaren aurka

Zenbait jende ez zituen ontzat eman aldaketa horiek. Erregimen Zaharrean pribilegioak zituzten sektoreak, noblezia eta kleroa, eta nekazariak eta eskulangileak ordena sozial berriaren aurka oldartu ziren, arrazoi ezberdinengatik baina norabide berean.

Mugimendu kontrairaultzaileen uholde bat

XVIII. mendearen bukaeran eta XIX. mendean, Europan mugimendu kontrairaultzaile handia bizi izan zen. Molde ezberdinak hartu zituen, garaia eta tokiaren arabera. Frantzia, la Vendée eta la Chouannerie direlakoak; Portugalen, migelismoa; Italian, Viva Maria eta sanfedistak; eta Espainian, errealismoa eta karlismoa.

Atzoko mundua defendatzeko ideiak

Frantziar Iraultzaren eraginez zenbait pentsalari kontrairaultzaile sortu ziren, aurreko pentsamenduan errotuak.

Besteak beste, nabarmendu ziren Edmund Burke ingelesa (1729-1797) eta Joseph de Maistre (1753-1821) eta Barruel abadea (1741-1820), biak frantsesak.

Pentsalari hauen eragina Espainiaraino ailegatu zen, Independentziako Gerran (1808), elizgizon publizista hauen eskutik: Lorenzo Hervás (1735-1809), Francisco Alvarado (1756-1814) eta Rafael Vélez (1777-1850).

Karlismoa, aspaldiko historia bat

Karlismoa Europan kontrairaultzaren barruan kokatzen da. Bi-biek antzeko ezaugarriak dituzte: legitimismoa, erlijioa babestea eta arrazionalismo iraultzailea arbuiatzea. Alabaina, karlismoak berezitasun bat dauka: luze iraun zuela. Egokitzeko zuen gaitasunak jarraitzeko aukera eman zion, gainerako mugimendu kontrairaultzaileak XIX. mendearen bigarren erdialdean deuseztatu arren.

Nafarroa eta karlismoa

Karlismoa hedatu zen, gehienbat, Espainiako iparraldean eta, batik batik, Euskal Herrian eta Katalunian, nahiz eta beste gune batzuk nabarmendu, hala nola Valentzia eta Aragoi, adibidez, eta, noiz edo noiz, Andaluzia. Mugimendua geografian ez zen ia aldatu; babesle kopurua, ordea, bai. Nafarroa oso lotua egon izan da karlismoaren historiarekin. Hori azaltzeko badira zenbait arrazoi: baldintza geografiko bereziak; bere kausa karlismoa eta foruen defentsarekin identifikatu izana edo Frantziako muga hurbil izateak ematen zuen borrokarako aukera.



2. EREMUA

ERREGIMEN ZAHARRAREN KRISIA ETA KARLISMOAREN SORRERA

Espainia 1808 baino lehen

Frantziar Iraultzak Karlos IV.aren erregealdia (1748-1819) markatu zuen.

1793an Espainiako monarkia gerran hasi zen Frantzia iraultzailearen aurka. Frantziarren garaipenak jargoi espainiarrak frantziarrekin bat egitea ekarri zuen. Ondorioz, beranduago, Napoleonen boterean zegoela, espainiarrek ingelesekin borrokatu behar izan zuten eta Trafalgarren (1805) galdu egin zuten. 1807an Fontainebleauko Hitzarmena sinatu zuten. Bertan gudaroste frantziarra Espainiako erresuman egotea ofizialki onartzen zen.

Frantziarren aurka, Jainkoaren, erregearen eta aberriaren alde

1808an gudaroste inperialen kontrako altxamendua gertatu zen, erregetza

hartu berria izanik tronutik kendu zuten Fernando VII.aren (1784-1833) eta us-tez arriskuan zegoen erlijioaren aldekoa. Azken batean, atzerritarren kontrako erantzuna ere izan zen, eta horrek Independentziako Gerrari (1808-1814) izaera nazionala eman zion.

Vienako Biltzarraren garaiko Europa

Napoleon garaitu ondoren, Europako agintari handienak Vienako Biltzarrean elkartu ziren (1814-1815) kontinentearen oreka politikoa berrezartzeko. Testu-inguru horretan, Austriako, Prusiako eta Errusiako erregeek Aliantza Santua eratu zuten, ezaugarri erlijioso argia zuena, jargoi absolutuen zilegitasunaren gaineko politika finkatzearen. Garai horretan Espainia potentzia bat ez izanagatik, Fernando VII.aren monarkia absolutista zen.

Armetara, erregearen alde

Independentziaren Gerraren bukaerak absolutismoaren garaipena ekarri zuen. Fernando VII.a jarri zen errege. Baina, 1820an iraultza piztu eta Cadizko Konstituzioa berriro jarri zuten indarrean. Ondorioz, erregearen alde altxatu ziren zenbait eta, nahiz eta lehenagoko esku-menak ez itzuli, San Luisen Ehun Mila Semeei ireki zieten atea, Aliantza Santuak igorritako gudaroste frantsesari, alegia. Orduan bai, Fernando VII.ak berreskuratu zuen aginte guztia.

Altxamendu erregetiarrak Fernando VII.aren aurka

Fernando VII.aren erregealdiko azken hamarkada (1823-1833) altxamendu ultraabolutista ugariaren lekuko izan zen. Garrantzitsuenak, *malcontents* katalanena



Nafarroako laia

Burdina
XVIII-XIX. mendeak.

Francisco Espoz y
Minarena izan zen
(1781-1836).

‘Aipatutako bi objektuez gain, berorrek beste bat gehitzea gustatuko litzaidake. Nire ustez ez da balio gutxiagokoa, izan ere, nire senarrak, bere ahalegin ahulekin atzerriko okupatzaileak aberririk kanporatzeko helburuarekin, bere nekazari lan lasai eta bertutetsua armen lanbide errespetagarriarengatik aldatu baino lehen lurrak lantzeko erabili zituen bi laietako bat da’. F. Espoz y Minaren alargunak Coruñaako Artilleriaren Errege Museoko zuzendariari idatzitako eskutitza, 1852.



1812ko Cádizko Konstituzioaren Mendeurrena oroitzeko domina. Aurrealdean, Alburquerque Jeneralaren zaldizko errepresentazioa. Atzealdean, Konstituzioaren alegoria femeninoa CONSTITUCIÓN POLÍTICA DE LA MONARQUÍA ESPAÑOLA 1812 inskripzioarekin eta EXIRENUM PROPUGNACULUM HISPANIAE AUTONOMICE idazkunaz inguratuta Espainiako banderaren koloreak eta erdigunean erroseta berdea dituen zinta.

Zilarra.



1789. urtean Gorteeek eskatuta On Karlos IV.a Errege Jaunak xedatutako legearen ondorioz ezarri eta Errege Agurgarriak argitaratzea agindu zuen **Zigor Pragmatikoa**

Madril, 1830

izan zen (1827). Matxinada hauetan zati-keta bat adierazten da ordura arte erregea defendatu zutenen artean, eta korronte erradikal berri bat agertzen da, karlismoaren aitzindari.

Gatazka juridiko bat: oinordetzaren gaia

Karlismoa, berez, auzi juridiko batetik sortu zen, Fernando VII.aren anaiaren eta alabaren artean, hots, Karlos Maria Isidro infantea eta Isabel printzesa, liskarrean hasi baitziren nork ote zuen tronurako eskubidea. 1789ko pragmatika baten argitalpena zen eztabaidagaia, emakumeak tronuratzeko aukera ematen baitzuen. Hartara, Don Karlos eta ultra absolutisten alderdia agintetik kanpora gelditu ziren.

1830eko martxoa: Fernando VII.ak Santzio Pragmatikoa argitaratu zuen, 1789an Gorteeek onetsia, baina Karlos IV.ak aldarrikatu ez zuena. Horren bidez Lege Salikoa indargabetu eta, beraz, bidea irekitzen zien emakumeei tronuratzeko. Karlos Maria Isidro infantea oinordetzatik kanpo geldituko zen, baldin anaiak umerik izaten bazuen.

1830eko urria: Isabel printzesaren jaiotza.

1832ko iraila: Fernando VII.ak, eri eta gobernuak gerra zibil bat saihesteko arudioarekin presionatuta, Santzio Pragmatikoa indargabetu zuen.

1832ko urria: Fernando VII.a, inork espero ez zuela bizkortu, eta indargabetzeko dekretua ezeztatu zuen.

1833ko ekaina: Isabel infantak Asturiasko printzesaren kargua zin egin zuen.

1833ko irailaren 29a: Fernando VII.aren heriotza. Isabel II.a, adingabea, erregina aldarrikatu zuten eta haren ama Maria Kristina erreginorde. Karlos Maria Isidro infanteak uko egin zion bere iloba erregina zela onartzeari eta horrek Lehen Karlistaldia ekarri zuen.



3. EREMUA

LEHEN KARLISTALDIA

Nafarroa Lehen Karlistaldiaren ondoren

Bergarako Itunaren ondoren, 1839ko urriaren 25ean Gorteeek Foruak Berresten dituen Legea (Nafarroa eta Vaskongadak) onetsi zuten. Horrela, foruak erregimen liberal berrira egokitzen saiatzeko prozesu bat abiarazi zen.

Ondorioz, 1841eko abuztuaren 16ko Foruak Hobesteko Legea onetsi zen. 'Legea Itundua' izenez ezagutzen da eta 1982. urtera arte egon zen indarrean. Une horretatik aurrera Nafarroa ez zen erreinu bat izan eta foru erkidego bilakatuko zen.

Informazioa interaktiboetan



Errege Estandartea edo Karlos V.aren Armadaren Bandera Jeneralisimoa

Aurrealdean, Doloreetako Ama Birjinaren medailoi margotua GENERALÍSIMA DEL EJERCITO DE CV idazkunarekin.

Atzealdean, Espainiako Errege Armak eta Urrezko Toisona.

Otoman eta zetazko belusezko hondoak eta zilar eta zilar doratzuko hari metalikoak.

Lentejuelak eta beirazko harribitxiak brodatutako armarrarian. Hari metaliko doratzuko litsak.

Alderdi Karlistaren gordailua-EKA.

María Francisca de Braganza de Borbónek, Karlos V.aren emazteak, brodatu zuen 1833ko kanpainaren hasieran. Ohoreko Guardiaren eskoltak erabili zuten. Bigarren Karlistaldian, Karlos VII.ak Zaldi Gaineko Guardiaren Errege Taldeari eman zion.



Carlos María Isidro infantea

Vicente López Portaña (Valentzia, 1772- Madril, 1850).

Oihal gaineko olio-pintura.

1823 inguru.

Prado Museo Nazionalaren gordailua. Madril.



Zumalakarregi jenerala

Gustavo de Maeztu y Whitney (Gasteiz, 1887-Lizarra, 1947).

Paperaren gainean egindako koloretako litografia.

Fournier grafika. 1936.

Lizarrako Udalaren gordailua. Gustavo de Maeztu Museoa. Lizarra Nafarro.

4. EREMUA

GERRARTEKO GARAIA 1845-1872

Informazioa interaktiboetan

garaia
5-1872

guerras
5-1872



Mati
Guer

- ◆ Karlista
- Karlista
- Karlista
- Liberal
- Karlista
- ▲ Alzamu

Asamblea Legislativa provincial de Lérida
El 18 de octubre de 1865 se constituye la Asamblea Legislativa provincial de Lérida, integrada por representantes de los partidos políticos de la zona.

Legislatura Constitucional
El 18 de octubre de 1865 se constituye la Asamblea Legislativa provincial de Lérida, integrada por representantes de los partidos políticos de la zona.

<p>1869 Primeras Cortes constitucionales. Asamblea legislativa de Lérida. Primeras Cortes constitucionales.</p>	<p>1868 Primeras Cortes constitucionales. Asamblea legislativa de Lérida. Primeras Cortes constitucionales.</p>	<p>1865 Asamblea Legislativa provincial de Lérida. El 18 de octubre de 1865 se constituye la Asamblea Legislativa provincial de Lérida, integrada por representantes de los partidos políticos de la zona.</p>	<p>1864 Asamblea Legislativa provincial de Lérida. El 18 de octubre de 1865 se constituye la Asamblea Legislativa provincial de Lérida, integrada por representantes de los partidos políticos de la zona.</p>	<p>1861 Asamblea Legislativa provincial de Lérida. El 18 de octubre de 1865 se constituye la Asamblea Legislativa provincial de Lérida, integrada por representantes de los partidos políticos de la zona.</p>	<p>1860 Asamblea Legislativa provincial de Lérida. El 18 de octubre de 1865 se constituye la Asamblea Legislativa provincial de Lérida, integrada por representantes de los partidos políticos de la zona.</p>	<p>1849 Asamblea Legislativa provincial de Lérida. El 18 de octubre de 1865 se constituye la Asamblea Legislativa provincial de Lérida, integrada por representantes de los partidos políticos de la zona.</p>
--	--	---	---	---	---	---





5. EREMUA

BIGARREN KARLISTALDIA

Errege-nahiaren irudia

Espainiatik at jaiotako ezezagun bat tradizioaren aldeko aukera politiko baten errege-nahi bihurtzeko (Karlos VII.a, noski) gogor saiatu behar izan zuten karlistek. Errege-nahiaren irudia eraikitzea beharrezkoa izan zen haren hautagaitza zehazteko. Ereku guztietan hartu zuen garrantzia lotua egon zen karlismoaren ikur bilakatzeko beharrarekin. Haren irudiaren, anagramaren eta izenaren proiektzioak agertoki eta euskarri guztiak hartu zituen.

Informazioa interaktiboetan



Zuabo Pontifizio baten uniformeak

Kepiz, kolore beltz bizardun txalekoaz, botoi doratuez eta gurutze latino gorri brodatu batez osatua. Kolore biziko jaka motza, lokarri doratuak eta botoi doratuan mahuketan eta beltzak eskumuturretan.

Bonbatxo tolesdunak. Gerruntzea (erreplika), gerrikoa (erreplika) eta azpantarrak (erreplika).

Txanodun berokia, gorri forratuta eta poltsikoen sarreatik, barrenen ertzetik eta aurrealdetik doan kordio batekin apainduta.

Lau botoi doratuz osatutako ilara bikoitza.

Artile eta kotoizko oihala.

Alderdi Karlistaren gordailua-EKA.

Zuaboak Argeliako Frantziako ejertzitoak 1830ean Argel hartu zuenean errekrutatutako zituen soldaduak ziren. 1840tik aurrera haien unitateak moriskoen antzeko uniformeak mantendu zituen soldadu frantsesez hornitu ziren. Zuabo pontifizioak 1860an Estatu Pontifizioen alde borrokatu zituen soldadu boluntarioak ziren.

Uniforme hau Alfontso Karlosena izan zen, izan ere, unitate honetan borrokatu zuen eta teniente izatera iritsi zen. Bigarren Karlistaldian bere guardia pertsonala osatzen zuen zuabo karlisten unitate bat sortu zuen.



'Attil' motako dolmana

Jaka luze urdina bizkarrean errosetak osatzen dituen xingola beltzarekin. Aurrealdean kordiozko oihal-apaingarriak eta Karlos VII.aren monograma

duen zazpi botoiko ilara bikoitza. Xingola doratuak lepoan eta mahuketan. Kapitain jeneralaren lanbidearen ezaugarria.

Artilea eta kotoizko azpikoa.

1875 inguru.

Alderdi Karlistaren gordailua-EKA.

Lakarko Guduan Karlos VII.a bisitatu zuen uniformearen jantzi gisa gorde da (1875eko otsailak 3).



Haizemailea

LOS REYES LEGÍTIMOS izenburupean, M^o de las Nieves, Carlos de Borbón, Jaime de Borbón, Margarita de Borbón eta Alfonso de Borbónen erretratuak obaloetan. Atzealdean, DIOS PATRIA Y REY idazkuna.

Zurezko ziri eta babesgailuak, inprimatu eta margotutako paperezko oihala.

Alderdi Karlistaren gordailua-EKA.



6. EREMUA

ARTEA GERRAN



Lehenengo Karlistaldiko gudua

Francisco de Paula Van Halen y Maffei (Vic, 1810-Madril, 1887).

Oihal gaineko olio-pintura.
1841.



Lakarreko karga

Enrique Estevan y Vicente (Salamanca, 1849-Madril, 1927).

Oihal gaineko olio-pintura.
1886.



Santa Cruz apaiza

Elías Salaberría (Lezo, 1883-Madril, 1952).

Oihal gaineko olio-pintura.
1928 inguru.



7. EREMUA

KARLISMOA XIX. ETA XX. MENDEEN ARTEAN

Karlismoa bake garaian

Errestaurazioak (1874) borboitarren dinastia ekarri zuen Espainiako jargoirra, Isabel II.aren seme Alfontso XII.arekin. Horrek eta Bigarren Karlistaldiaren bukaerak aldaketak eragin zituzten karlismoan. Batetik, 1833an hasitako guduaren zikloa itxi zen, eta alderdia (Komunioa) egokitzera behartu zuen, izan ere, jadanik gerra ez zen besteekin lehiatzeko bide nagusia. Karlistetan garrantzitsuena Cándido Nocedal (1821-1885) izan zen. El Siglo Futuro egunkariaren babesa zuen. Bestalde, iraultzaren kontrako mugimenduak elkartzeko zeregina galdu zuen karlismoak, horretan aritua

baitzen Seiurteko Iraultzailean (1868-1874): monarkia berriak, ordena eta eliza katolikoaren lehentasuna bermatzen zituen. Beraz, barne borrokak sortu ziren karlisten eta integristen artean, baita zatiketa integrista ere, 1888an.

Modernizazio politikoaren garaia

Zatiketa integristak karlismoa gogor jo zuen. Bizkortzen saiatu zen, hala ere, berantolatuz eta estrategia berriak bereganatuz. Alderdia modernizatzeko hainbat bide erabili ziren, besteak beste, ideologiaren birdefinizioa, prentsa (*El Correo Español* atera zuten Madrilan), argitalpenak, batzordeak sortzea han eta hemen,

propaganda aktiboa eta gizartean hedatzea. Zirkulu tradizionalistek berebiziko garrantzia hartu zuten eta alderdiaren muin bihurtu ziren. Une horretan, Cerralboko markesa (1845-1922) izan zen une horretako figurarik garrantzitsuena.

Garai bortitzak eta barne tirabirak

1898ko krisiaren ondoren, matxinatze-ko asmoak berpiztu ziren karlismoan, emaitza garrantzitsurik gabe, alabaina. XX. mendearen hasieran, alderdia berantolatu eta gazteak mobilizatzeko jarduerak egin ziren. Jarduera fisikoak ziren (ibilaldi luzeak, tiro ariketak) eta izaera paramilitarra hartu zuten, hain-



Jaime III.aren ohorezko ezpata

Urreztatuko metalezko hornidura, diamante, kuartzo hori-berdexka, errubi eta esmalte berotuzko inkrustazioekin.

Damaskinatutako altzairuzko xafla. Larru beltzezko zorroa, urre koloreko aho eta muturrekin.

Eusebi Arnau (eskultorea) — Masriera Anaiak (bitxigileak).

Toledoko Errege Fabrika, 1910.

Gordailu partikularra.

Solferino dukea buru zuen komisio karlista batek ohorezko ezpata hau oparitu zion Jaime de Borbóni 1911ko urtarrilaren 15ean Frohsdorfeko gazteluan, hau da, errege-nahia bizi zen tokian.

Pieza honek balio handia du bere kalitate eta aberastasun materialarengatik. Masriera anaien tailerrean egin zen. Modernismo katalanaren tailer garrantzitsuenetako bat zen honek Eusebi

Arnau eskultorearekin maiz kolaboratzen zuen. Gainera, pieza hau oso garrantzitsua da karlismoarentzat esanahi berezia duelako eta Jaime III.a errege-nahiarekin lotura zuzena duelako.

Eskutokian dragoi bat eta haren gainean bi figura ditu: Espainia, tunika bat eta koroa mural bat soinean dituen emakumezko figura batek irudikatzen duena, eta soldadu karlista bat eskuineko eskuan sable bat heltzen duena eta ezkerrekoarekin Errege Etxearen armak dituen bandera baten makila. Dragoiaren erdigunean hiru lis-lore dituen armarri esmalteztatu bat dago eta, zorroaren oinarrian, Dios Patria Rey lema karlista diamantez egina.



Karlos VII.aren erretratua

Enrique Estevan y Vicente (Salamanca, 1849– Madril, 1927).

Oihal gaineko olio-pintura.

Eskaintza goiko ezkerreko izkinan:

‘A mi querida y siempre fiel. Tudela:

E. del Castillo de Piñeyro’ 1880.

Alderdi Karlistaren gordailua–EKA.



El Correo Español. Egunkari Tradizionalista

1894ko urtarrilak 6. 1598. zb.

beste, non 1912 aldera, erreketea sortu baitzen: bi mundu gerren arteko garai-ko masen politikarekin eta giro gatazka-tsuarekin bat zetorren borrokalari talde bat. 1909an Carlos VII.a hil zen Varesen (Italia) eta bere seme Jaime III.ak Juan Vázquez de Mella buru zuen barne oposizioari aurre egin behar izan zion. Alderdiek orduantxe eratzen ari ziren abertzaletasun kontserbadoreen, eskuindarren batasunaren eta Lehen Mundu Gerraren (1914-1918) aurrean jarrera ezberdinak zituzten eta ondorioz, zatiketa mellista etorri zen 1919an, eta Alderdi Katoliko Tradizionalista eratu zen.



Elkarte Tradizionalista II. Errepublikaren erreformismoaren aurrean

Errepublika berriak Espainiako historia garaikidea ezaugarritu zuten arazo larriak gainditzeko erronkei aurre egin zien: sistema politiko elitista, militarismoa, eliza katolikoaren pribilegioak, zentralismoa eta latifundismoa. Elkarte Tradizionalista errepublikaren gobernuak 1931 eta 1933 artean proposatu zituen erreforma guztien kontra agertu zen argi eta garbi: konstituzio demokratikoa, nekazaritzako erreforma, eliza katolikoa eta estatuaren arteko banaketa, eta, 1932ko ekainetik aurrera, Vaskongaden, Nafarroaren eta Kataluniaren autonomia arbuizatzea.

Elkarte Tradizionalistaren berrantolaketa politiko eta militarra

Elkarte Tradizionalistak alderdiaren antolaketa modernoa egituratu zuen: elkar-teak, batzar erregional eta munizipalak, erakunde femeninoak, 'margaritak', eta 'pelayo' gazteak, prentsa eta talde armatua, erreketea. Elkarte Tradizionalistak hainbat elkarte profesioaletan, entitate sozioekonomikotan, kirol eta aisialdirako erakundetan parte hartze zuzena zuen. 1934tik aurrera, erakunde horien era-

ginkortasuna, jardutea eta militantzia birkainatzen izan zen. Karlismoaren tradizio militarista indartu egin zen. Horrela, batetik, errepublikaren erreformak arbuizatzen konspirazioa igaro zen; bestetik, gerran parte hartzen errepublikanoak, langile, nekazari eta abertzale ezkeriarren indarrez zapaltzera.

Ideologia tradizionalista

Elkarte Tradizionalistak eliza katolikoaren, familia tradizionalaren eta ikasketxe erlijiosoen interesak babesten zituen; ordena sozial kapitalista, nekazal jabego handiak, ordena publikoa eta armada defendatu zituen, baita eskualdeek Espainiako burujabetasun nazionalaren barruan zuten izaera anitza ere. Tradizionalistek ideia horiek guztiak haien nortasuna definitzen zuten ondare moduan bereganatu zituzten eta zituzten baliabide guztiekin defendatu zituzten inork kendu ez zekiekeen.

Elkarte tradizionalista eta nekazaritza

Karlismoak hamarkadetan zehar defendatu zuen doktrina sozial katolikoa bazter geratu zen II. Errepublikarekin, lurjabe handien onerako. Lurjabe handien in-

teresen gaitetik zegoenez, Errepublikaren nekazal legediaren aurka agertu zen landa eremuko milaka nekazarien kutxa eta sindikatu katoliko hartzen zituen Nekazarien Konfederazio Nazional Katolikoaren jardunak agertu zuen moduan. Lurrik gabeko nekazariak politika tradizionalistatik kanpo geratu zen.



Euskal Estatuaren Estatutu Orokorra 1931ko ekainaren 14an Lizarran egin zen Euskal Udalen Biltzar Nagusian onetsitakoa.

Bilbo, Inp. E. Verdes Achirica, 1931.



Indarkeriaren politika 1936ko uztailetik aurrera

Elkarte Tradizionalistak 1936ko estatu kolpea defendatu zuen gobernuarekin eta Errepublikarekin amaitzeko. Errepublikaren aurkakoak ziren militarrek inposatu ziren tokietan Errepublikaren aldeko hautesle, kargu publiko eta erakunde sindikal zein politikoen kontrako jazarpen bortitza defendatzen zuen politika ezarri zen: Galizia, Nafarroa, Errioxa, Gaztela eta Andaluzia zein

Aragoiko zonalde batzuk. Agintari karlistak matxinatutako armadarekin batera erabakigarriak izan ziren jazarpen odoltsu honetan. Zapalkuntza horretan Nafarroako Karlistaldiaren Batzar Nagusiak garrantzi berezia izan zuen.

Matxinatutako armada nazionalen parte hartzea

Estatu kolpea baino lehen erreketearen erakundeen parte ziren edo 1936ko uztailaren ondoren haietan boluntario

gisa izena eman zuten milaka karlista borroka unitateetan sartu ziren, Oinezko Erregimentuetan, eta matxinatutako armadarekin bat egin zuten Mola eta Queipo de Llano jeneralen agintaritzapean. Milizia karlistek garrantzi berezia izan zuten matxinatuen planetan eta erabakigarriak izan ziren errepublikanoen iparraldeko frontearen eroraldian. Gerran 60.000 karlista inguruk borrokatu zuten Franco jeneralak 1936ko udaren amaieratik gidatzen

zuen armadan. Karlisten hamarren bat borrokan zendu zen.

Karlismoaren mendekotasun politikoa gerra garaian

Elkarte Tradizionalista mugimendu independentea berehala erreboluzioaren kontrako koalizioaren barruan sartu zen. Elkartea Tradizionalistaren miliziak unitate militar arruntetan sartu izanak eta Errege Akademia Militar Karlista bat sortzea debekatu izanak Elkartea Tradizionalistak alderdi bakar bat osatzearekin bat egitea eragin zuten, Falange Española eta JONS sortzea ekarri zuen 1937ko apirilaren Bateratze dekretuaren arabera. Karlismoak ezin izan zuen haren erakundeak erortzea ekidin, nahiz eta haren ideologia mantendu egin zen.



Iruñeko Erreketearen banderatzoa

Aurrealdean, Iruñeko armarría eta soldadu karlistak alboetan: turuta-jotzailera, abanderatua eta infanteria soldadua. Armarrían 'DIOS PATRIA REY' idazkuna eta oinarrian 'REQUETÉ DE PAMPLONA'.

Atzealdean, Aralarko San Migelen irudia eta Nafarroako bost merindadeen armarríak; ezkerretik eskuinera, Olite, Tuterá, Iruñea, Lizarra eta Zangoza, olioan margotuta, eta goialdean 'NOR JAUNGOIKOA BEZALA' idazkuna.

Pieza hau Nafarroan Gerra Zibilaren aurreko urteetan erreketearen eta margariten antolakuntzarekin lotuta dago.

Zeta zurizko satinezko hondoa. Olioan margotutako irudiak.

Hari metaliko doratuzko litsak.

Aurrealdean, María Isabel Baleztenaren sinadura.

XX. mendeko lehenengo herena.



Erreketeen ofizialaren uniformeak

Gerra Zibila (1936-1939) I Jauregizar Fundazioaren gordailua. Tabarreko Museoa. Nafarroa.

Arropa hauek osatzen dute uniformeak:

Zortzi puntako izarra daraman txapela gorria eta kolore nazionalak dituen txapa eta Elkartea Tradizionalista Karlistaren armarría. Artilea eta esmalteztatutako aluminioa.

ETKren ikurra duen alkandora, maila adierazten duen ezaugarria, detentea eta Nafarroako Armadaren Taldearen 61. Dibisioaren irudia. Kotoia eta artilezko oihala.

Bonbatxoak. Kotoia Armaren zorroa eusteko uhalak. Larrua

Galtzerdi zuriak (erreplika).

Botak. Larrua

Renato Sáez Bermejorena izan zen, hau da, Nafarroako Armada Taldearen unitate karlista bizkaitarraren Oriamendiko Oinezko Erregimentuaren komandantearena.



Ikur honekin, garaile

Gustavo de Maeztu (Vitoria-Gasteiz, 1887- Estella-Lizarrá, 1947).

Oihal gaineko olio-pintura. 1937.

Nafarroako Museoren gordailua. Iruñea.



10. ESPARRUA

TRILEMAREN PIEZEN BILA (1939–1957)

Alde eta kontra

1939ko apirilean, karlismoa garaileen bandoaren parte izan zen lehenengo aldiz. Karlista batzuek gogo handiz bat egin zuten frankismoarekin, erakunde berrien sorreran eta ezarpenean eta garaiak jazartzen lagunduz. Haietako askorentzat tradizio karlistaren xede nagusietako batzuk lortu ziren. Alabaina, beste batzuek Bateratzea arbuiatu zuten Espainia tradizionala berrezartzeko kaltegarria zela uste zutelako. Horrela, bat egitearen kontra agertzen hasi ziren eta garaileak izan ziren arren, garaiak izan zireneko ideia hedatzen hasi zen, nahiz eta ez zuten garaituen jazarpena jasan. FET eta JONSe kingeroz eta liskar gehiago izaten hasi ziren (Begoña, 1942ko abuztuaren 16an; Iruñeko Gaztelu enparantza, 1945ean; Mauricio de Sivatteren konfinatze eta erbesteratzeak 1939 eta 1940an; José Luis Zamanillo, 1943; eta

karlisten Ordezkeri Nagusia Manuel Fal Conde –Ferrerries, 1941–). Erregeordea, Jabier de Borbón Parma, naziek atxilotu egin zuten eta Dachau bukatu zuen.

Errege-nahiak

1936ko irailaren 29an Alfonso Karlos I.a hil eta gero erregearen figura desagertu egin zen. Jabier de Borbón Parma buru izango zuen erregeordetza bat ezarri zen hautagai egoki bat topatu arte. Horrek ordura arte erakundeak zuen batasuna lortzeko gaitasuna murriztu egin zuen eta, tronutik baztertua ez izan arren, bera hautagai aukeratzeko erabakia 1952. urtera arte atzeratu egin zen. Urte horietan, erregeordetzaren kontra agertzeko eta 1947ko Ondorengotza Lege frankistaren babesean, hainbat hautagai aurkeztu ziren. Hori dela-eta, banaketak sortu ziren: oktabistak (Blanca infantaren semea eta

Karlos VII.aren biloba zen Karlos VIII.aren jarraitzaileak –Karloktabistak–. 1943an banandu egin ziren eta 1932tik aurrera kruzadistetan aurrekariak izan zituzten arren, erregimenaren babesa izan zuten 1948 arte. Bera anaia Antonio tronuan egon zen 1953tik 1961 arte Carlos IX.a zenarekin); juanistak (Alfonso XIII.aren semea zen Juan de Borbónen alde egin zutenak; harekin bat egin zuten Rodeznok eta beste buruzagi batzuek 1946an, Lausanan, eta behin betiko Estorilen 1957an –‘Estoriloak’-) Horrez gain, sektore batzuek alderdi monarkikoa baztertu egin zuten, garrantzizgabea zela uste zutelako (Mauricio de Sivatteren jarraitzaileak –sivatistak– 1948tik aurrera. 1958an Lizarrako erregeordetza sortu zuten, eta erregimenaren kontrakoa izategatik oso jazartua izan zen).

Masa karlistak

Tentsioek eta errege baten figurarik ez izateak adoregabetasuna eta desantolaketa hedatzea eragin zuten. Karlismoa ez zen ofizialki existitzen, komunikabi-deak konfiskatu edo erregimenera batu egin ziren, erakundeak desegin ziren, elkarteak itxi egin ziren eta egitura publiko guztiak desagertu egin ziren. Berrogeigarren hamarkadaren amaieran berriro sortzen hasi zen (Elkarte Tradizionalistaren Kontseilu Nazionala, 1947). Talde klandestinoak zeuden, Unibertsitatean AET adibidez, eta erregimenaren kontrako dokumentuak idatzi ziren, esaterako Manifestación de ideales izenekoak (1939).

Karlista arruntak, egiturarik gabe eta erregimen berriaren kontra, edo garaipenaz konbentziturata, memoria bizirik mantentzearen ardura hartu zuten agintarien aurka borrokatuz, izan ere, haiengana erakartzen eta haien memoria desgerrarazten saiatu ziren. Montserrat, Quintillo, Villarreal, Haro eta Jurramedin zeremonial erlijiosoak zuten oroitzapenak zituzten. Egoeraz gehien jabetzen zirenek berrikusketak eta kritikak egitea bultzatu zuten, batez ere berrogeita hamargarren hamarkadaren amaieratik aurrera.



Boletín de Orientación Tradicionalista

Bigarren garaia, 5. zk., 1950eko martxoa.

Imprenta Orientación, Madril.



¡Volveré! Portavoz de la Comunión Carlista

VII. urtea, 118. zk., Madril, 1954ko urtarrilak 25.

Jesús Martín Alíases gordailua.



Comunión Tradicionalista alderdiaren batzorde nazionalaren azalpena eta irizpena, Espainako karlisten izenean Francisco Javier de Borbón-Parma y Braganza printzipe erregeordeari helarazitakoa, 1952ko maiatzaren 30ean, XXXV. Kongresu Nazional Eukaristikoaren kariatara Bartzelonan egon zenean.



11. ESPARRUA

FRANCOREN ALDE EDO KONTRA (1955–1968)

Kolaborazio politika eta Karlos Hugo sustatzea

Berrogeita hamargarren hamarkadan karlismoa erregimenera hurbildu egin zen frankismoaren barruan tronua ondoz ondoz lortu ahal izateko. 1955ean Jabier de Borbón Parmak Manuel Fal Conde ordezkatu zuen eta José María Valiente, José Luis Zamanillo eta Juan Sáenz-Díezek Idazkaritza Nazional bat hartu zuten. 1957an Elkarte Tradizionalistaren Gobernu Batzordea osatu zen. 1960an Valiente ordezkari nagusia izendatua izan zen eta Zamanillo idazkari nagusia. 1965eko urtarrilean Jabier de Borbón Parmak erregetza karlista behin betiko bere gain hartu zuen. Erregimenera hurbildu izanak alde batetik mesfidantza eta bestetik tolerantzia ofizial handiagoa eragin zituen: Madrilen Vázquez de Mella Elkarte Kulturala sortu zen (1959) eta, hortik Espainia osora hedatu zen; Erreketeen Oinezko Erregimentuetako Borrokalari Ohien Anaidi Nazionala (1962); Maistrutzaren Anaidia, Ramón Forcadellena (1962) edo oposizioarengana hurbildu egin zen Karlisten Kongresu Nazionala 1966an. Erakunde sindikalak sortu ziren (Movimiento Obrero Tradicionalista, MOC, Murtzia 1963) eta Zaragozako SUC-CVM argitaletxeak legezko argitalpenak bultzatu zituen: Halaber, aldi berean behingo prentsa anitza sustatu zen (*Siempre*, 1958; *Azada y Asta*, 1960; *Montejurra*, 1960).

Testuinguru horretan Karlos Hugo de Borbón Parma Asturiaseko printze gisa aurkeztua izan zen Jurramendin (1957). Ramón Massó, Ángel Romera, José M^a de Zavala, Pedro Echeverría, José Antonio Parrilla eta Celestino García Marcosek osatzen zuten idazkaritza handi batek printzea prestatu eta promozionatzeko kanpaina bat bultzatu zuen. Horren barne sartu zituzten Madrilen bizitzea, Holandako Irene printzesarekin ezkontzea (1964) eta beste hainbat jarduerak. Erregeren familia karlista osoa prozesu horretan inplikatu zen.

Ideologia argitzea eta erresistentziak

Garai honen ezaugarrietako bat gazte-riak gerra zibila ezagutzen ez zuela da. AETak egin zituen proposamen eta jarduerak idazkaritzak eta Karlos Hugo de Borbón Parmak babestu zituzten berrikuntzak ekarri zituzten. Pedro José Zabalak eta Zaragozako taldeak hirurogeita hamargarren hamarkadaren erdialdera hausnarketa ideologikoa sustatu zuen eta 'argitze ideologikoa' deritzon prozesu bat abiarazi zuten, eta karlismoaren sektore zabal bat sozialisten eta autogestioaren alde agertu ziren. Gainera, Vatikanoko II. Kontzilioan eta berrikusketa ideologikoa bat eskatzen zuten pertsonetan oinarritu zen.

Politika eboluzionistak eta oposizioak, José María de Zavala buru zuenak, posibilismo-kolaborazionismoa ordezkatzeko jarraitu zuen. 1968an Valiente bere kargutik kendu egin zuten eta karlismoa alderdi politiko gisa finkatu zen.

Prozesu horrek idazkaritzan banaketak eta susmo txarrak eragin zituen, eta 1966 eta 1967 artean hautsi egin zen. Sektore tradizionalistak horren kontra agertu ziren, banandu eta erakunde propioak sortu zituzten, batzuetan erregimenaren babesarekin. Sektore kritikoenetako bat Francisco Elías de Tejada buru zuena izan zen, 1962an banandu egin zena; beste bat José Luis Zamanillorena izan zen, 1963an bereizi zena. Beste zenbaitek bestelako erakundeak sortu zituzten: Batzorde Depuratzailak eta Karlismoa Defendatzeko Batzordeak, Aparisi eta Guíjarro Zirkulua, Ikerketa Historiko eta Politikoen Zumalakarregi Jenerala Zentroa. Ramón Forcadellen Maestrutzaren Anaidiak ere bide hori hartu zuen. Honen erreferentea Sixto Enrique, Javier de Borbón Parmaren semea, izan zen.

Masa karlisten bila

Jarduera eta berrikuntza hauek karlismoaren hedapenarekin batera gertatu ziren, kontzentrazioak areagotu ziren eta karlismoa komunikabideetan agertu zen. 'Jabierismoak' jarraitzaileen presentzia bultzatu zuen. Aldizkariak eta zenbait egunkariak bultzadak, *El Pensamiento Navarro* egunkariak 1966tik aurrera egin zuena adibidez, ahalegin horiek agerian utzi zituzten, nahiz eta aldi berean banandutako sektoreek kontrako ekimenak antolatzen zituzten eta memoria eta sinboloak bereganatzeko lehia gero eta handiagoa zelako.

Politizazio giro horretan, 'jabierismoa' eredu tradizionalistetatik urrundu zen eta militantzia aktiboa defendatu zuen. Ondorioz, banaketa gehiago egon ziren, baina baita ikaskuntza politikorako eremu bat ere; bertatik etorkizunean alderdi eta sindikatu etako buruak izango zirenak sortu ziren.



Carlos Hugo Jurramendin
aurkeztea

Ignacio Ipiña.

Oihal gaineko olio-pintura.
1957.



Margaritas. Cruzada de la mujer carlista

17. zk.

Bartzelona.



Montejurra

III. urtea, 36. zk., otsaila.
1968.



12. ESPARRUA

KARLISMOA TRADIZIONALISMOAREN ETA FRANCOREN ERREGIMENAREN OPOSIZIOAREN ARTEAN (1968–1977)

Jabierismotik karloshugismora

1968ko abenduan errege familia karlista Espainiatik kanporatua izan zen. ‘Jabierismo’ izeneko mugimendua erregimenetik guztiz aldendu egin zen eta Arbonneko Karlisten Kongresuen bidez barneranzko garapen ideologikoa bultzatu zuen (1970, 1971 eta 1972). Era horretan, Alderdi Karlista sortu zen eta sozialismoaren eta autogestioaren printzipioak bereganatu zituzten. Kanporanzko garapen ideologikoa frankismoaren aurkako plataformetan parte hartuz gauzatu zen (Batzorde Demokratikoa, Batasun Demokratikoaren Plataforma, Espainiako Koordinazio

Demokratikoa eta Erakunde Demokratikoen Plataforma).

Erregimenak komunikabide karlistei oztopoak jarri zizkien. Zigorrek jarri zizkien (Zaragozan editatzen zen *Esfuerzo Común* aldizkariari ‘Secuestro común’ esaten zitzaion) eta 1970an *El Pensamiento Navarro* egunkaria jabierismotik atera egin zen, sektore tradizionala igaroz 1981ean desagertu egin zen arte. Autoritate frankistek Ramón Forcadellen Maitrutzaren Anaidia bezalako aukera tradizionalistak babestu zituzten.

Karlismoak eragindako oposizioa dela-eta, prozesuak eta atxiloketak egon ziren pintaketak eta manifestazioak egitea-

gatik, baina baita Ekintza Karlistarako Taldeen (GAC) jarduketengatik ere, izan ere, atentatuak gauzatu zituzten eta ETA-rekin harremana izan zuten. Gainera, sindikatuetan parte hartu zuen, MOTekin lehenengo eta Langile Sozialisten Federazioarekin beranduago (FOS), bi kasuetan LKrekin oso lotura handia zuen.

Alderdi Karlistak erregimenaren hausturaren eta demokratizazioaren alde egiten zuen eta sozialismoa eta autogestioaren bidea defendatzen zituen. Doktrinei buruzko dokumentazio ugari argitaratu zituen eta propaganda handia egin zuen. Fronteen egituraren aurrean, aktibismoa bultzatu zuen eta eskualdeko

autonomien sistema zabalaren defentsa bere gain hartu zuen, foruzalea baitzen. Hala ere, tradizio historikoak pisu handia zuen eta hortaz ideologia ez zen asko argitu.

1977ko ekaineko hauteskundeetan, Alderdi Karlista legeztatu ez zen gutxietakoa bat izan zen eta hainbat plataformatan integratuta aurkeztu zen, baina bere profila difuminatu egin zen (Montejurra. Fueros. Autonomía. Socialismo. Autogestión, Nafarroan eta Gipuzkoan; Agrupación Electoral Carlista Palentzian edo Valladoliden eta Electors Carlins del Pais Valencià Castellón). Oso emaitza txarrak jaso zituzten, hutsalak.

Tradizionalismo karlista eta trantsizioaren helduera

Sektore tradizionalistak, legalizatuta zeudenak, hauteskundeetan eskuratu

zituzten emaitzak ere ez ziren garrantzitsuak izan. Maistrutzaren Anaidiak Unión Social Monárquica izena hartu zuen 1975ean, Frente Institucional 1976an eta Partido Social Regionalista 1977an. Zamanillok bi alderdi sustatu zituen: Unión Nacional Española sustatu zuen, 1976an legalizatu zena eta Alianza Popular alderdiaren barruan integratuko zena; eta Comunción Tradicionalista, 1977ko otsailean legalizatua izan zena. Askotan Sixto Enrique zuten buru, batez ere bere aita Karlos Hugo de Borbón Parmak 1975ean abdikatu ondoren.

Ahultasunak eta gatatzak

Tradizionalista eta berritzaileen arteko istiluak areagotu egin ziren eta gatazka horiek komunikabideetan, panfletoetan eta manifestuetan eztabaidatzetik indarkeria fisikora igaro ziren. Gainera, jarrai-

tzaileak alde egiten hasi ziren, bai Alderdi Karlistakoak bai tradizionalismokoak, eta esparru parlamentario osoko alderdi politikoetan sartu ziren. Sektore tradizionalistak, Sixto Enrique buru zuenak eta nazioarteko muturreko eskuineko alderdiek babesten zutenak, 'errekonkista operazioa' abiarazi zuen. Eragiketa hori oroimenerako Jurramendi eremu sinbolikoan gauzatu zen. Tentsioa nabarmena zen arren, gobernuak ez zuen esku hartu eta 1976ko maiatzaren 9an muturreko eskuindarrek bi pertsona hil (Ricardo García Pellejero eta Aniano Jiménez Santos) eta zauritu ugari utzi zituzten, haien artean Alderdi Karlistak deituta bertaratu zirenak. Errudunetako batzuk atxilotuak izan ziren, baina 1977an amnistia eman zitzaion. 2003. urtera arte ez ziren Jurramendin hildako pertsonak terrorismoaren biktimatzat hartu.



Enbata

455 zk., maiatzak 12
1977.


Inp. Photograv. du
Sud-Ouest, Baiona.



Maestrazgo. Dios, Patria, Fueros, Rey

I. urtea, 1 zk., uztaila
1972.

Castellón de la Plana,
Mialfo.



Informe Montejurra '76

Baiona, Gayaumet.

1977.



MUSEO DEL CARLISMO /
KARLISMOAREN MUSEOA

C/ Rúa - Rua k., 27-29
31200 Estella - Lizarra
(Navarra/Nafarroa)
T +34 948 552 111
www.museodelcarlismo.navarra.es

ISBN 978-84-235-3590-3
DL/LG NA 1063-2021